

ELORRIO / Irakurketa sustatzeko lehiaketa Udal Liburutegian

Elorrioko 50 gazte inguruk hartzen dute parte Udal Liburutegiak antolatu duen irakurketa lehiaketaren XVII. edizioan. Ekimen honen helburua irakurketa eta liburutegira joateko ohitura gazteen artean bultzatzea da. Lehiaketan parte hartzeko baldintza bakarra liburutegiaren katalogoan dauden bi liburu aukeratu eta irakurtzea da. Ondoren, parte hartzaileek liburutegiko arduradunek emango dizkieten fitxak bete beharko dituzte. Hori izango da baloratuko dena irabazleak aukeratzeko, eta hainbat kategoriatan saikatutako sariak banatuko dira. Sari-banaketa abanduearen 16an ospatuko da Iturri Kultur Etxean. Bertan, jai bat antolatuko da eta guztiek izango dituzte opariak.